

FINANTZA-KUDEAKETAREN BALANTZEA / Aurrekontuaren betetze-maila

Iruñeko Udalak, Nafarroako Foru Komunitatean kokatuak, 197.604 legezko biztanle zituen 2012ko urtarilaren 1ean, 2012ko abenduaren 29ko EAOn argitara emandako datu ofizialen arabera. Hori da, hain zuzen, aurrekontuko adierazleak eta ratioak kalkulatzeko erabiltzen den biztanle-kopurua.

Bere jarduna garatzeko, Udalak ondoko erakunde autonomo eta entitateak sortu ditu:

- *Administrazioaren sektore publikoa* deitu daitekeenaren barruan, hau da, administrazio-zuzenbidearen arauetara lotutako sektorearen barnean, Iruñeko Udaleko Hirigintza Gerentzia eta Iruñeko Udaleko Haur Eskolak ditugu.

- *Enpresa publikoen sektorea*: bertan kokatzen dira Udala partaide bakarra duten enpresak –hala nola Comirruña SA, Pamplona Centro Histórico SA eta Udal

Kontu bateratuan ondokoak sartzen dira: Udalaren eta bere erakunde autonomoen likidazio bateratua, batetik, eta egoera-balantze bateratua, bestetik, non, aipatutako hiru entitateekin batera, Comirruña SA, Pamplona Centro Histórico SA, eta Udal Laguntza Etxean SA elkarteak ere sartzen baitira.

ANIMSAren eta Mercairuña SAren kontuak eranskin gisa jasotzen dira Kontu Orokorrean.

Bi fundazioen kontuak ere sartzen dira Kontu Orokorrean, Osoko Bilkurak oneste aldera, Comptos Ganberak emandako gomendioei jarraiki.

Hona Alkateak 2013ko uztailaren 22ko 2/SG Ebazpenaren bidez onetsitako Udalaren zein haren erakunde autonomoen aurrekontu-likidazioaren betetze-mailari buruzko datu adierazgarrienak:

Entitatea	Aitortutako betebeharrak	Aitortutako eskubideak	Langile kopurua, 2012/12/31n
Udala	186.912.781,00	202.402.091,20	1.193
Hirigintza Gerentzia	23.121.808,93	28.773.008,96	30
Haur Eskolak	7.440.427,55	7.524.568,65	169

Laguntza Etxean SA–, Udala partaide nagusi dutenak –adibidez, Asociación Navarra de Informática Municipal SA (aurrerantzean, Animsa) eta Mercairuña SA. Partaidetzak ondoko laukian zehaztu dira. Sozietate horiek guztiak merkataritza-lege orokorrean daude lotuta, kontabilitateari dagokionez, baina horrek ez du galarazten beren urteko kontuak (partaidetza nagusia den kasuetan) Udalaren Kontu Orokorrean sartzea.

- Aurrekoez gain, Udalak Gayarre Antzokia eta Erruki Etxea *fundazioak* ditu. Horiek, fundazio direnez, estatutu juridiko berezia daukate.



Hona entitate nagusiak haren erakunde autonomoi egindako ekarpenak, transferentzia arruntez zein kapital-transferentziez bezainbatean:

Ikuskapen-txostenak aldeko iritzia eman zuen kontuei eta ekonomia- zein finantza-jardunari buruz, betiere legezkotasun-printzipioarekin bat aurrekontuez,

Kontzeptua	Hirigintza Gerentzia	Haur Eskolak
Transferentzia arruntak	1.150.000,00	5.235.613,74
Kapital-transferentziak	4.394.957,33	0
Guztira	5.544.957,33	5.235.613,74

Hirigintza Gerentziaren kontuak Gerentziaren Kontseiluak onetsi zituen, 2013ko martxoaren 27an. Ikuskatu dira, eta txostenak aldeko iritzia jaso du, ondarearen eta finantza-egoeraren irudi fidelaren islari dagokionez, eta legezkotasun-printzipioarekin bat, aurrekontuez, kontratazioaz eta langileriaz bezainbatean.

kontratazioaz eta langileriaz bezainbatean.

Hona datu esanguratsuenak, Udala partaide duten sozietateei buruz:



MEMORIA 2012
149

Haur Eskolen kontuak haren batzordeak onetsi zituen, 2013ko apirilaren 8an. Horiek ere ikuskatu egin dira.

Izena edo izen soziala	Jarduera nagusia	Zuzeneko partaidetza (%)	Ikuskatua
COMIRUÑA SA	Txikizkako merkatuak	% 100,00	BAI
PCH SA	Hirigune historikoko hirigintza	% 100,00	BAI
ASIMEC SA	Etxez etxeko laguntza	% 100,00	BAI
MERCAIRUÑA, S.A.	Handizkako merkatua	% 51,00	BAI
ANIMSA SA	Udaleko Informatika	% 77,69	BAI

Enpresa	Emitza-kontua Gastuak	Emitza-kontua Diru-sarrerak	Emitza ekonomikoa
Comiruña	492.767,46	600.208,72	107.441,26
PCH SA	1.761.893,52	1.514.853,76	-247.039,76
Mercairuña	1.160.020,18	1.365.218,51	205.198,33
ANIMSA	6.486.806,00	6.501.139,00	14.333,00
ASIMEC SA	1.635.742,41	1.801.544,66	165.802,25



Comiruiña SAren 2012. urteko aurrekontuaren ekitaldi-emitza 107.441,26 euro izan zen. Ikuskapen-txostenean, aldeko iritzia jasota dago kontuei buruz. Kontuak Administrazio Kontseiluak aurkeztu zituen 2013ko martxoaren 27an, eta akziodunen Batzar Nagusiak 2013ko maiatzaren 13an onetsi zituen.

Pamplona Centro Histórico SA sozietateak Administrazio Kontseiluak egindako kontuak aurkeztu zituen 2013ko martxoaren 25ean, behar bezala ikuskaturik eta aldeko iritzia zutela islaren fideltasunari eta legezkotasunaren betetzeari dagokienez. 2012an, 247.039,76 euroko emitza negatiboa izan zen, baina Kontabilitaterako eta Kontu Ikuskaritzarako Institutuaren irizpidea aplikatzearen ondorioz diru-laguntzak ondare garbiaren aldaketa gisa kontabilizatuta. Beste alde batetik, aipatu ondare garbia 1.888.081,79 eurotan handitu zen, nagusiki ekitaldian kapitalaren diru-laguntzak jaso zirelako, zeinak hainbat ekitalditan egotziko baitira. Kontuak onesteko akziodunen Batzar Nagusia 2013ko ekainaren 14an egin zen.

Mercairuiña, S.A. sozietateak 205.198,33 euroko emitza positiboa zuela itxi zuen 2012ko ekitaldia. Diru hori, gehien bat, jarduera arruntetatik etorria zen. Ikuskapen-txostenean, aldeko iritzia jasota dago kontuei buruz. Administrazio Kontseiluak 2013ko otsailaren 19an aurkeztutako urteko kontuak akziodunen Batzar Nagusiak onetsi zituen, 2013ko maiatzaren 7an.

ANIMSAk 14.333 euroko emitza positiboa aurkeztu zuen ekitaldi honetan, ustiapen-emitzaren artean banatua (4.046 euro). Finantza-emitza positiboek (10.287 euro) konpentsatu zuten hori. ANIMSAren

kontuen gaineko ikuskapen-txostenak aldeko iritzia jaso zuen kontuen isla fidelaz bezainbatean. Administrazio Kontseiluak 2013ko martxoaren 18an aurkeztu zituen kontuak, eta akziodunen Batzar Nagusiak onetsi, 2013ko ekainaren 5ean.

Asistencia Municipal en Casa, S.A. sozietatearen ekitaldi-emitza positiboa izan zen, 165.802,25 euroekin. Ikuskapen-txostenak aldeko iritzia jaso zuen legezkotasun-printzipioa betetzeaz bezainbatean. Administrazio Kontseiluak 2013ko martxoaren 25ean aurkeztu zituen kontuak, eta akziodunen Batzar Nagusiak onetsi, 2013ko ekainaren 13an.

Fundazioei dagokienez, hona haien gastu eta diru-sarrerari buruzko datuak.

Gayarre Antzokia Udal Fundazioaren kontuak Patronatuaren Batzordeak onetsi zituen 2013ko maiatzaren 29an. Ikuskapen-txostena aldekoa izan zen. Ekitaldiko emitza negatiboa ustiapenaren emitzek eragin zuten.

Erruki Etxearen kontuak 2013ko maiatzaren 23an aurkeztu zitzaizkion Udalari. Ekitaldiak 1.430.030,56 euroko mozkinak izan zituen. Ikuskapen-txostena aldekoa izan zen.

Fundazioa	Emitza-kontua Gastuak	Emitza-kontua Diru-sarrerak	Emitza ekonomikoa
Gayarre Antzokia			
Udal Fundazioa	1.984.543,95	1.982.741,39	-1.802,56
Erruki Etxea	16.744.093,52	18.174.124,08	1.430.030,56

Mankomunitateak

Iruñeko Udala Iruñerriko Mankomunitatearen parte da. Mankomunitate horren bitartez ematen ditu uraren ziklo osoari (ur-hornidura eta behe-saneamendua), hiri-hondakin solidoen tratamenduari eta hiri-garraioari (autobus- eta taxi-zerbitzuak) dagozkien zerbitzuak.

2012an, 2.540.320,48 euroko gastua egin zen Iruñeko Udalaren aurrekontuan hiri-garraioa finantzatzeko. 2005eko irailaren 1ean Udalbatzaren Osoko Bilkurak taxi-zerbitzua kudeatze aldera Iruñeko Udala Mankomunitatean sartzeko 13/CC erabakia hartu ondoren, xedatuta gelditu zen taxi-lizentzia berriak esleitzeagatik jasotako diru-sarrerak Iruñeko Iruñerriko Garraioaren Planei egin beharreko ekarpenak finantzatzeko erabiltzea, 2011. urtean diru-sarrera horiek agortu arte. Hori horrela, 2012. urte osoari dagokiena ordaindu beharra dago.

Partzuergoak

Suteak itzaltzeko zerbitzu publikoa Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuaren bitartez ematen zen. 2006ko uztailaren 4ko Osoko Bilkuran hartutako 19/CP erabakiaren bidez, Iruñeko Udalbatzak Nafarroako Gobernuarekin batera izenpetu beharreko agiria onetsi zuen, Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuergoa desegin eta, horrekin batera, bi erakundeen menpe zeuden zerbitzuak Nafarroako Larrialdietako Agentzian sartzeko.

